

HONDARTZA-TXANGOA (DONIBANE LOHIZUNE)

Donibane Lohizune itsaso bazterrean dago, baina mendiak ez daude urrun. Kortsarioen portu izandakoak bere nortasuna atxikitzen jakin izan du. Balea ihizira Ternuara joaten ziren garai haiek urrun gelditu badira ere, sare eta amu arrantzaleak ikus ditzakegu oraindik portuan lanean. Itsasoa eta alde zaharra lotzen dituzten karrika txikietan garai hartako armadoreen etxe handiak ikus ditzakegu, euren fortunaren adierazle, eta Frantziako Luis XIV eta Espainiako Maria Teresa infantaren arteko ezkontzaren oroitzapena ere bizirik dago.

Erromarida eta Akotze auzoek izate naturala atxiki dute. Hiri erdigunetik 1,5 km-ra besterik ez, bi auzoetatik pasa zaitezke itsasbazterreko bidexka segituz. Santa Barbara muinora heltzean, ez ohiko ikuspegi ederra irekiko zaizue Hondartza Handira eta Larrun aldera.

Hemen itsas labar garaiak eta hondartza naturalak txandakatzen dira. Bertara etortzen dira surfariak, uhain perfektuaren bila, eta hiri erdiko hondartzak baino hondartza lasaiagoak nahi duen jendea.

Donibane Lohizunek eta Ziburuk orain urte zenbait "Arte eta Historia Lurralde" aipamena eskuratu zuten.

Label horrekin Donibane Lohizuneko historia eta ondarea landu eta balioan ezartzen dira. Usu inguruko Ziburu, Getaria eta Urruña herriekin partekatzen duen historia eta ondarea.

Donibane Lohizuneko Hondartza Handia

Luis XIV plazatik eta portutik 2 minutura dago. Hondartza Handia da Donibane Lohizuneko hondartza ezin huts egina da. Hondar fina, hiru itsas harresiek babesturiko ur eremu lasaia... familian eta bereziki haur gazteekin egoteko hondartza ezin hobea da.



Data eta ordutegiak:

- Irteera: 2024ko ekainaren 19an, asteazkena.
- Non: Estadio Vital Fundazioa.
- Noiz irten: 9:30ean (ordu bete eta 45 minutuko bidaia).
- Noiz ailegatu: 19:00etan Donibane Lohitzunetik irten – 20:45ean Estadion
- Helmuga: 43.39973591438537, -1.6647204645803486

Material gomendatua irteerarako:

- Bainujantzia, toalla, hondartzarako oinetakoak.
- Eguzkitako krema eta betaurrekoak.
- Arropa eta oinetako egokituak eguarldiaren baldintzen arabera (hiritik paseoa emateko, bisitak...).

Beste gomendatutako materialak:

- Telefono mugikorra.
- N.A.N.a edo pasaporte.
- Bidaiarako arropa: autobusean erabiltzeko bustiko bagina...